


2. GAIA:

ERIZAINZAKO GRADUKO GAITASUNAK

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

Europako Unibertsitate Eremuak (EUE) ezarritako prestakuntza esparruak ikuspegi aldaketa bat eragin zuen unibertsitatearen hezkuntza zereginen, eta **gaitasunak** eskuratzera eta **garatzera** bideratu zen zeregin hori, ikaslea ardatza izanik.

Tejadaren (1999) arabera, gaitasuna da «ezagutzen, prozeduren eta jarrerren multzo bat, konbinatuak, koordinatuak eta integratuak, non norbanakoak 'egiten jakin' eta 'egoten jakin' behar duen, lan profesionalerako» (1). Ondorengo irudian (1. Irudian), gaitasun baten oinarri diren hiru zutabeak ikus daitezke: ezagutzen multzoa (jakitea), prozedurak edo trebetasunak (egiten jakitea), eta zeregin profesional jakin bati dagozkion jarrerak (egoten jakitea eta egiten jakitea). Hiru elementu horiek menderatuz gero, ikaslea «gai» izango da eraginkortasunez aritzeko bere ibilbide profesionalean.



1. Irudia. Gaitasunaren zutabeak

Horrela, nabarmendu nahi da ezinbestekoa dela ikasleak, gaitasuna eskuratzear gainera, hura praktikan jartzea. Hori dela eta, gaitasunak lotuta daude ikaskuntza emaitzekin. Practicuma baliabide ezin hobea da gaitasunak garatzeko, ikaskuntza emaitzak erakutsiz (2). Gaitasunetara begira ikastean, ikaslea, hezkuntza prozesuaren ardatz nagusian kokatzen da, bere ikaskuntza prozesuaz arduratzen da, eta berak kudeatzen ditu edukiak eta horiek ikasteko modua eta unea. Irakaslea arduratzen da estrategia metodologikoak zehazteaz, ikasleen lana gidatu eta orientatzeko eta haiei aholku emateko, eta ebaluazio mekanismoak ezartzeaz (3).

Alde batetik, 1393/2007 Errege Dekretuak, bere lehenengo eranskinean, **Gradu guztietarako oinarritzko gaitasunak** jasotzen ditu (4), halako moldez, non edozein gradutako ikasleek, dagokion titulazioan jasotako gainerako gaitasunez gainera, honako hau erakutsi behar duten titulazioa amaitu aurretik:

- Eskuratu eta ulertu dituztela ikasketa arlo bati dagozkion ezagutzak, bigarren hezkuntza orokorraren oinarritik abiatzen den ikasketa arloa. Arlo horrek, testuliburu aurreratuetan oinarritzen bada ere, bere ikasketa eremuaren abangoardiako ezagutzei loturiko zenbait elementu bilduko ditu.
- Gai direla beren jakintzak beren lanean edo bokazioan modu profesional batean aplikatzeko, eta badituztela beren ikasketa alorrarekin zerikusia duten gaitasunak, zeinak argudioak emanez eta arazoak ebatziz egiaztatuko diren.
- Gai direla datu garrantzitsuak bildu eta interpretatzeko (norberaren ikasketen arloan, normalean), gizarte, zientzia edo etikako gai garrantzitsuei buruzko gogoeta egin eta iritzia emateko.
- Gai direla informazioa, ideiak, arazoak eta konponbideak transmititzeko, bai adituei bai aditu ez direnei.
- Gai direla gero egin nahi dituzten ikasketei autonomia maila handiarekin ekiteko behar diren ikaskuntza gaitasunak garatzeko.

Bestetik, CIN/2134/2008 Aginduak ezartzen ditu erizaintzako prestakuntzarako titulazioaren baldintzak (5), eta **erizaintzako titulazioan garatu beharreko gaitasun** guztiak zehazten ditu:

- 18 gaitasun orokor (1. Taula)
- Oinarritzko prestakuntzako 15 gaitasun espezifiko (2. Taula)
- Erizaintza Zientzietako 40 gaitasun espezifiko (3. Taula)
- Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanaren gaitasunak (4. Taula)

Taula 1. Erizaintzako Gaitasun Orokorrak (EGO)

EGO1	Erizaintzaren arloan, gai izatea arreta sanitario tekniko eta profesionala emateko, zaintzen den pertsonaren osasun beharretara egokitua, unean-uneko ezagutza zientifikoaren garapen mailaren arabera eta kontuan izanik arau legalek eta deontologikoek ezartzen dituzten kalitate nahiz segurtasun mailak.
EGO2	Osasunean emaitzak lortzera orientatutako erizaintza zainketak planifikatzea eta gauzatzea pertsona, familia eta taldeentzat, haien inpaktua ebaluatuta, praktika klinikoko eta asistentzialeko giden bitartez, zeinetan osasun arazo bat diagnostikatu, tratatu edo zaintzeko prozesuak deskribatzen baitira.
EGO3	Erizaintzaren oinarri eta printzipio teorikoak eta metodologikoak ezagutzea eta aplikatzea.
EGO4	Pertsonaren portaera interaktiboa ulertzea, generoaren, taldearen edo komunitatearen arabera, haren testuinguru sozialean eta kultur aniztunean.
EGO5	Pertsona, familia edo taldeei zuzendutako zainketa sistemak diseinatzea, haien eragina ebaluatuz eta beharrezkoak diren aldaketak eginez.
EGO6	Erizaintzako interbentzioak oinarritzea ebidentzia zientifikoan eta eskura dauden baliabideetan.
EGO7	Pertsonak aurreiritzirik gabe ulertzea, haien alderdi fisikoak, psikologikoak eta sozialak aintzat hartuta, gizabanako autonomo eta independente gisa, haien iritzia, sinismenak eta balioak errespetatuz eta konfidentzialtasun eta sekretu profesionalaren bidez haien intimitaterako eskubidea bermatuz.
EGO8	Artatutako pertsonak erabakiak hartzen dituztenean, haien parte hartze, informazio eta autonomia eskubidea bultzatzea eta errespetatzea, baita baimen informatua ere, osasun-gaixotasun prozesua nola bizi duten aintzat hartuta.
EGO9	Bizitza estilo osasuntsuak, autozaintza, bultzatzea, jarrera prebentiboak eta terapeutikoak izatea babestuta.
EGO10	Artatutako pertsonen, familia edo taldeen osasuna eta ongizatea babestea, haien segurtasuna bermatuz.
EGO11	Komunikazio eraginkorra izatea gaixoeekin, familiarekin, gizarte taldeekin eta lankideekin, eta osasunean oinarrituta hezkuntza sustatzea.
EGO12	Espainiako erizaintzaren kode etiko eta deontologikoa ezagutzea, baita etengabe aldatzen ari den munduan osasunak dituen ondorio etikoez jabetzea ere.
EGO13	Finantzaketa sanitario eta soziosanitarioaren printzipioak ezagutzea, eta eskura dauden baliabideak egoki erabiltzea.
EGO14	Ebaluazio bitartekoak ezartzea, alderdi zientifiko teknikoak eta kalitatezkoak aintzat hartuz.
EGO15	Profesionalen osatutako talde batekin lan egitea, oinarritzko unitate gisa, non asistentzia erakundeetako profesionalak eta gainerako langileak egituratzen baitira, diziplina bakar edo anitzeko eta diziplina arteko ikuspegitik.
EGO16	Osasun informazio sistemak ezagutzea.
EGO17	Erizaintza zainketak osasunaren arreta integralean oinarritzea, barne hartuko dituen diziplina anitzeko lankidetzak, prozesuen integrazioa eta asistentzia jarraitutasuna.
EGO18	Erosotasunerako eta sintomen arretarako neurriak hartzeko estrategiak ezagutzea, pazienteari eta familiei begira, gaixo aurreratuen eta terminalen egoera arintzen lagunduko duten zainketa aringarriak aplikatuta.

Iturria: (4)

Taula 2. Erizaintzako oinarrizko prestakuntzako gaitasunak (EOG)

EOG1	Giza gorputzaren egitura eta funtzioa ezagutzea eta identifikatzea.
EOG2	Zelulen eta ehunen oinarri molekularrak eta fisiologikoak ulertzea.
EOG3	Erizaintzako zainketei lotutako produktu sanitarioen erabilera eta egokitasuna ezagutzea.
EOG4	Farmako taldeak, horiek baimentzeko, erabiltzeko eta agintzeko printzipioak eta haien ekintza mekanismoak ezagutzea.
EOG5	Medikamentuak erabiltzea, espero diren onurak ebaluatuta, bai eta lotutako arriskuak eta/edo haiek eman eta kontsumitzearen ondorioak ere.
EOG6	Pertsona osasuntsuen eta osasun arazoak dituzten pertsonen nutrizio beharrak ezagutzea eta baloratzea, beren bizi ziklo osoan, elikadura portaera osasungarriaren ildoak sustatzeko eta indartzeko.
EOG7	Zer elikagai eta janaritan dauden identifikatzea.
EOG8	Prebalentzia handieneko nutrizio arazoak identifikatzea, eta gomendio dietetiko egokiak hautatzea.
EOG9	Teknologiak eta komunikazio eta informazio sistemak osasun zaintzari aplikatzea.
EOG10	Prozesu fisiopatologikoak ezagutzea, baita haien zeinuak eta arrisku faktoreak ere, zeinak osasun eta gaixotasun egoerak zehazten baitituzte bizi zikloaren etapetan.
EOG11	Hainbat osasun egoeraren aurrean (bereziki, gaixotasuna eta sufrimendua) pertsonak emandako erantzun psikosozialak identifikatzea, horietan laguntzeko ekintza egokiak hautatuta.
EOG12	Familia eta pazientearekin harreman enpatikoa eta begirunetsua izatea, pertsonaren egoerekin, osasun arazoarekin eta garapen etaparekin bat etorruta.
EOG13	Estrategia eta trebetasun egokiak erabiltzea, paziente, familia eta gizarte taldeekiko komunikazioa eraginkorra izan dadin eta haien kezkek eta interesak adieraz ditzaten.
EOG14	Bizi arriskuko egoerak ezagutzea eta bizi euskarriko maniobrak egiten jakitea, oinarrizko mailan eta maila aurreratuan.
EOG15	Genero indarkeriatik eratorritako arazo psikologikoak eta fisikoak ezagutzea eta identifikatzea, ikaslea prestatzeko indarkeria mota horren prebentzioan, aurretiazko detekzioan, asistentzian eta errehabilitazioan.

Iturria: (4)

Tabla 3. Erizaintza zientzietako gaitasunen modulua

EZG1	Osasun kontzeptua eta zainketak identifikatzea, integratzea eta erlazionatzea, ikuspegi historiko batetik, erizaintzako zaintzaren eboluzioa ulertzeko.
EZG2	Ikuspegi ontologiko eta epistemologiko batetik erizaintzako diziplina eratzen duten oinarrizko kontzeptuen bilakaera ulertzea, baita eredu teoriko nagusiak ere, zaintzeko prozesuan metodologia zientifikoa erabilia eta dagozkion zainketa planak garatuta.
EZG3	Erizaintza prozesua aplikatzea, artatutako pertsonen ongizatea, kalitatea eta segurtasuna emateko eta bermatzeko.
EZG4	Erizaintzako zainketa integralaren oinarrian dauden printzipioak ezagutzea eta aplikatzea.
EZG5	Erizaintzako zainketa integralak gizabanakoari, familiari eta komunitateari ematea, eta horiek gidatzea eta ebaluatzea.

... 3. taularen jarraipena. Erizaintza Zientzietako moduluko gaitasunak (EZG)

EZG6	Osasunaren lehen mailako arretaren oinarriak eta gizabanakoari, familiari eta komunitateari erizaintzako arreta integrala emateko jarduerak deskribatzeko gaitasuna.
EZG7	Lehen Mailako Osasun Arretarako talde batean profesional baten eginkizuna, jarduerak eta lankidetzak jarrera ulertzea.
EZG8	Pertsonen, familien eta taldeen parte hartzea sustatzea, beren osasun-gaixotasun prozesuan.
EZG9	Inguruneko osasunari eta arazoei lotutako faktoreak identifikatzea, osasun eta gaixotasun egoeretan dauden pertsonak komunitate bateko kide gisa artatzeko.
EZG10	Gizabanakoetan eta taldeen osasun mailan barne eta kanpo faktoreen eragina identifikatzea eta analizatzea.
EZG11	Komunitate baten osasun arazo nagusiak identifikatzeko, bere arloan beharrezkoak diren metodoak eta prozedurak aplikatzea.
EZG12	Populazio azterketei lotutako datu estatistikoak analizatzea, osasun arazoen balizko arrazoiak identifikatuta.
EZG13	Osasun arazo, arrisku, sufrimendu, gaixotasun, ezgaitasun edo heriotzaren eraginpean dauden komunitateko kideen osasun eta ongizaterako heziketa, erraztasunak eta babesa ematea.
EZG14	Helduen osasun nahasmenak ezagutzea, fase bakoitzean ematen diren zeinuak identifikatuta.
EZG15	Osasun arazoetatik eratorritako zaintza beharrak identifikatzea.
EZG16	Balorazioan bildutako datuak aztertzea, paziente helduaren arazoetan lehenitasunak ezartzea, eta zainketa plana prestatu, egin eta ebaluatzea.
EZG17	Erizaintza zainketarako teknikak eta prozedurak erabiltzea, gaixo eta familiekiko harreman terapeutiko bat edukita.
EZG18	Osasun desbideratzeetatik sortutako arazoak tratatzeko edo prebenitzeko xedea duten interbentzioak hautatzea.
EZG19	Taldeko kideekin lankidetzan aritzeko jarrera edukitzea.
EZG20	Emakumeen ezaugarriak identifikatzea ugalketa zikloaren hainbat etapatan, baita klimaterioan eta eman daitezkeen nahasmenetan ere, etapa bakoitzean beharrezkoak diren zaintzak emanez.
EZG21	Amatasun prozesuan zainketa orokorrak aplikatzea, emakumeei eta neonatoei eskakizun berrietara egokitzen laguntzeko eta zailtasunak prebenitzeko.
EZG22	Neonatoaren zainketaren alderdi espezifikoak ezagutzea.
EZG23	Hautzaroaren eta nerabezaroaren etapen ezaugarriak eta hazkuntza eta garapen eredu normala baldintzatzen duten faktoreak identifikatzea.
EZG24	Hautzaroaren osasun arazo ohikoenak ezagutzea eta haien zeinuak identifikatzea.
EZG25	Haurraren balorazio datuak analizatzea, erizaintza arazoak eta ager daitezkeen zailtasunak identifikatuz.
EZG26	Erizaintza zainketa osatzen duten teknikak aplikatzea, harreman terapeutiko bat ezarrita haurrekin eta haien zainzaileekin.
EZG27	Haur osasuntsuari eta gaixoari zuzendutako interbentzioak hautatzea, baita diagnostiko eta tratamendu metodoetatik eratorritakoak ere.
EZG28	Gurasoentzako edo lehen mailako zainzaileentzako osasun heziketa emateko gai izatea.
EZG29	Zahartze prozesuari lotutako aldaketak eta horiek osasunean dituzten ondorioak ulertzea.

... 3. taularen jarraipena. Erizaintza Zientzietako moduluko gaitasunak (EZG)

EZG30	Zahartze prozesuari lotutako aldaketa estrukturalak, funtzionalak eta psikologikoak identifikatzea, baita bizi moduari lotutakoak ere.
EZG31	Adineko pertsonen osasun arazo ohikoenak ezagutzea.
EZG32	Zainketa interbentzioak hautatzea, osasun arazoak prebenitzeari edo tratatzeari eta eguneroko bizimoduari egokitzeari begira, adineko pertsonari laguntzeko baliabide hurbilak erabilia.
EZG33	Espainiako Osasun Sistema ezagutzea.
EZG34	Erizaintza zerbitzuak eta zainketak kudeatzeko zuzendaritza funtzioaren ezaugarriak identifikatzea.
EZG35	Taldeak zuzentzeko teknikak ezagutu eta aplikatzeko gai izatea.
EZG36	Lege aplikagarria eta Espainiako erizaintzako kode etikoa eta deontologikoa ezagutzea, Europako erizaintzako kode etikoan eta deontologikoan inspiratuta dagoena.
EZG37	Zainketak ematea, pazienteen eta familiaren duintasun, pribatutasun, intimitate, konfidentzialtasun eta erabakitze eskubideak bermatuta.
EZG38	Banakako zainketa ematea, pazientearen adina, generoa, kultur desberdintasunak, talde etnikoa, sinesmenak eta balioak aintzat hartuta.
EZG39	Osasun mentaleko arazo nagusiak ezagutzea, bizi zikloaren hainbat etapatan, zainketa integralak eta eraginkorrak emanez erizaintzaren arloan.
EZG40	Zainketa aringarriak eta minaren kontrola ezagutzea, gaixo aurreratuen eta terminalen egoera arinduko duten zainketak emateko.

Iturria: (4)

Taula 4. Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanaren gaitasunak

Practicum	Praktika aurre-profesionalak, txandakatze kliniko independente gisa eta gaitasunen amaierako ebaluazio batekin, osasun zentroetan, ospitaleetan eta beste asistentzia zentro batzuetan, aukera emango dutenak praktikan jartzeko balio profesionalak, komunikazio asistentzialeko gaitasunak, arrazoibide klinikoa, kudeaketa klinikoa eta iritzi kritikoa, jardun profesionalean integratuz erizaintzako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, printzipioetan eta balioetan oinarrituta, helburu orokorretan eta titulua osatzen duten gaietan deskribatutako gaitasunei lotuta.
GRAL	Gradu Amaierako Lana: zeharkako gaia, hainbat ikasgairi lotuta garatuko dena.

Iturria: (4)

BIBLIOGRAFIA

1. Tejada Fernández, J. Acerca de las competencias profesionales (I). Revista Herramientas. 1999, 56: 20-30.
2. Uranga Iturriotz MJ, Gil Molina P, Alberdi Erice M, Barandiaran Lasa M, Eizmendi Garate I, Elordi Güenaga U, et al. Diseño del Practicum del Grado en Enfermería. Practicumaren diseinua Erizaintzako Graduan. [Internet]. 2022. [kontsulta, 2022/4/1]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56179>
3. Hernández Pina F, Martínez Clares P, Martínez Juárez M, Monroy Hernandez F. Aprendizaje y competencias. Una nueva mirada. Rev Española Orientación y Psicopedagogía. 2009; 20 (3): 312-9.
4. Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, unibertsitate irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala internet, 260 zk. (2007ko urriaren 30a) kontsulta: 2021/5/13. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/rd/2007/10/29/1393>
5. CIN/2134/2008 Agindua, uztailaren 3koa, erizain lanbidean jarduteko gaitzen duten unibertsitate titulu ofizialak egiaztatzeke baldintzak ezartzen dituena. Estatuko Aldizkari Ofiziala internet, 174 zk. (2008ko uztailaren 19a) kontsulta: 2021/5/13. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/o/2008/07/03/cin2134>